

Eszena ikuskizunak sustatu eta saltzeko eta arte eszenikoen alorrean sentsibilizazio, prestakuntza eta bitartekotza egitasmoak dituzten Gipuzkoako konpainia eszenikoei (antzerkia eta dantza) diru laguntzen oinarriak.

ESKATZAILEAK

- Gipuzkoan zerga eta sozietate helbidea duten persona fisiko nahiz juridiko-pribatuak izatea.
- Ekonomia Jardueraren Gaineko Zergan dagokion atalean izena emanda egotea. pertsona juridikoa denean bere helburu edo gizarte xedea antzerki edota dantza jarduerekin zer ikusia duena izatea.
- Azken bost urtetan gutxienez 3 eszena ikuskizun profesional ekoitzi eta zabaldu izana.

GEHIENEZ 21.000 €

AURKEZTU BEHARREKOA:

- Eskaera orria beteta.
- Diru laguntzaren xede den proiektu, programa edo jardueraren azalpen-txostena.
- Proiektuaren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua. (horretarako aplikazioan atxikitzen den eredu bate).

KANPO GELDITZEN DIRA

- Diru laguntza izenduna xedatua dutenak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren beste diru laguntza deialdietan egokiago sar daitezkeenak edo espresuki sartuta daudenak.
- Ekoizpen eszenikoak modu ez profesionalean egiten dituzten entitateak. Honela, ez profesionaltzat emango dira antzezlanen interpreteekin (aktore, dantzari) kontratu harremanik lotzen ez dutenak.

BALDINTZAK

- Deialdiko urtean aktibo egotea, aurtengo edo iazko obra batekin.
- Jarduerak urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31aren artean burutzea.

HONAKO ARLOETAKO JARDUERAK:

- Eskatzaileak ekoiztako eszena ikuskizunen (antzerkia eta/edo dantza) sustapen eta salmenta.
- Arte eszenikoen alorreko sentsibilizazio, prestakuntza edo bitartekaritza jarduerak Gipuzkoan.

DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA KALKULATZEKO:

- a) Ikuskizunen sustapen eta salmentan osorik edo denbora batez jarduten den pertsonalaren kontratazio kostuaren % 70a, 15.000 euroko diru-laguntza mugarekin.
- b) Komunikazio gastuen edota sustapenera zuzendutako materialak gauzatzearen gastuen % 70a, gehienez 3.000 euroko diru-laguntza.
- c) Arte eszenikoen alorrean sentsibilizazio, prestakuntza eta bitartekaritza lanetan erabiliko den gastuen % 70a, gehienez 3.000 euroko diru-laguntza.

DIRU KOPURUA

Diruz lagundu daiteke programa garatzeko aurreikusitako gastuen % 70a.

Horrek esan nahi du proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren % 30 ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

Aipatutako diru laguntzen gehienezko kopuruak % 50era mugatuko dira:

- Eskatzailea irabazi asmorik gabeko elkartearen denean.
- Eskatzailea konpainia berri bat denean.

EPEAK

- **ESKAERAK AURKEZTEKO**

Dirulaguntza horien eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da.

Azken eguna: 2021-05-31

- **ZURIKETA AURKEZTEKO**

Agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da

- **ORDAINKETA:**

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 emateko ebazpenarekin batera eta gainerako %40a diruz lagundutako jarduerara amaitu ostean.

TRAMITAZIOA NOLA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>)
Horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...)

Taula hauek K bulegoak egindako laburpenak dira. Oinarrien detaile guztiak, eskaerak aurkeztu, inprimakiak eta aurkeztu beharrezko dokumentazioa:

- Oinarriak: [Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 78 zk., 2021eko apirilak 29](#)
- Deialdia: [Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 78 zk., 2021eko apirilak 29](#)

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaerari dagokionez izan ditzakezun dudekin.

www.kbulegoa.eus

(+34) 943 113 343 / kbulegoa@gipuzkoa.eus /
Errege-erregina Katolikoaren kalea, 16 / 20006 Donostia.
Astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00

*Hitzordua hartzea gomendatzen dugu.

K
B
U
L
E
G
O
A

